

KURUTZEBIDEA ARGIBEA

- Ondo etorri danok
Bizkai Irratira
- Jesus kurutzan hil da
ta ez erretira.
- Aitak biztu egin dau
gaur bizi barrira,
- Ixi ta entzun Pazku
kanpai hotsak dira.

1

- Lagunak hilobira
hil danaren bila.
- Baina inguru dana
huts eta isila.
- Aingerua oihuka:
"Berbiztu da hila"
- Pazku kanpaiak din-dan
poztasun pilpila.

2

- Jesus Berarekin geuk
egin dogu topo
- Hak argiz bete ditu
baztar eta zoko.
- Hau jakinda nok ez dau
txistu soinu joko
- Jesus gaurkoa da ta
ez da, ez atzoko.

3

- Pozez kabidu ezin
Mari Madalena
- Jesus biztu dala ta
hau ez dogu lehena.
- Haren barri emoten
pozez dabilena
- Lehengo pekataria
gaur da leialena.

4

- Emausko bidea
bide ezaguna
- Jesus barik hau bide
luze ta astuna.
- Erdian sartu jake
bideko Laguna
- Berak argitu deutse
oker ta iluna.

5

- Ezin dot sinistu neuk
ez badot ikusi
- Jesus agertu jake
eta erakutsi.
- "Ikusteke sinistu,
hori da nagusi"
- Tomasek: "Ene Jainko",
dinotso Jesusi.

6

- Ikasleak arrantzan
sardin ta besigu
- Handik aurrera dira
Jesusen testigu.
- Gure itsas ertzean
agertu bekigu
- Eta esango dogu:
"Gaurtik geuk dakigu".

7

- "Pedro, maite al nozu",
Jesusek esana
- "Maisu, ondo dakizu
maite zaitudana".
- Gaur be gogoan dauka
ukatu izana
- "Zuri emoten deusut
eskubide dana".

8

- Azkenean agertu jaken Galilean
- Besarka bedeinkatuz bihotz maitalean.
- Izan nire testigu mundu zabalean
- Iragarri naizue etxe ta kalean.

9

- Ez zagoze bakarrik erbeste hotzean
- Zuekaz nago bizitz ta heriotzean.
- Gugaz dago lanean eta otoitzean
- Hurrean dogu eta bila bihotzean.

10

- Eleizak izan behar Jesusen esparru
- Mundua barritzeko Kanpo eta barru.
- Ekin lanean eta otoitzean marru
- Eleiza dedin ta ez azal huts mamarru.

11

- Pedro Jerusalengo jentez bete plazan
- Espirituak argiz betea izan zan.
- Batzuk amorruez eta asko pozez dantzan
- Jesusek agindu lez hasi zan arrantzan.

12

- Gorrotuz doa Saulo zaldiz Damaskora
- Jesus agertu jako ta hor hankaz gora.
- Nor zaitut? -Ni naz Jesus ekarri gogora
- Gaur zure agindura jarten naz gustora.

13

- Jesus ezagutzeko da Jaunaren Hitza
- Eta bere izpilu da gure bizitza.
- Espiritua barik dana da murrizta
- Baina beharrezkoa da gure ekintza.

14

- Jesus hau nun aurkitu daukagu jakina
- Nun dagoan behartsu gaixo eta mina.
- Honei egindakoa Berari egina
- Oi ze poza gaur hortik hasiko bagina!

15

- Gaur ez da nahiko Jesus hil dala esanda
- Munduak hil eta Aitak biztua izan da.
- Hau Barri Ona da ta ez da propaganda
- Gaur geure zain daukagu ta ez galdu txanda.